

5 CANVAS KANALAK

Gure produktua bezeroengana helarazteko sare-sozialen erabilpenaz baliatuko gara. Webgune baten bidez ere ahaleginduko gara jendearengana hurbiltzen, bertan gure produktuaren xehetasunak azalduz. Gurekin lan egiten duen arropa enpresak (Baskbrand) ere publizitatu gaitzake.

Gure bezero-segmentuarekin sare sozialen bidez komunikatu gaitzke; sarean aurki ditzakegun ekitaldi ezberdinetan ere gure produktuari buruz komunikatu gaitzke. Hemen txertatu dugun esteka hau sarean aurki dezakegun ekitaldietako bat da: gure helburuetako bat gure zerbitzuak Ficoba Bioterra 2022n (XVIII. edizioa) parte hartzea da. (http://bioterra.ficoba.org/micro_Bioterra/index.asp).

Komunikatzeko gure funtsezko kanala bezeroari eskeinitako arreta-zerbitzua izango da.

Gure produktua lokal fisikoan eskuratzeko aukera egongo da eta kontsumitzaileen etxera produktua eramateko banatzaileak ere edukiko ditugu. Salmenta-kanalak gure webgune propioa eta gure lokal fisikoa izango dira. Gure produktua ebaluatzeko garaian, bezeroek edukiko dute aukera, beraiei zer iruditzen zaien esateko aukera emanaz eta zer puntuazioa emango lieketen jakinaraziko lukete gure webgunean, ea gure kalitatea edo prezioak hobetzeko beharra daukagun jakingo genuke iritzi horiei esker. Produktuak bezeroarengan arazoren bat eragiten badu (jostailu hautsiren bat, arroparen kalitate txarra, etab.), gure webgunean aurkitu dezakete gure mugikor zenbakia gurekin kontaktatzeko eta arazoa gure esku uzteko.

Gaur egun, batez ere, gazteen artean, oso zaila da lana aurkitzea, lantoki gehienetan lan-esperientzia eskatzen baitute. Guk auzi horri aurre egiteko esperientzia gabeko jendea kontratatuko dugu produktu banaketarako, lanean hasteko aukera emanaz. Akzio txiki horrekin, gazteen artean dagoen langabezia murriztu nahiko genuke. Ohartzen gara oso ehuneko txikiarengan eragingo dugula baina espero dugu emaitza onak ateratzea.

Gure zerbitzuaren bidez haurrentzako jostailuak edota arropak balio merkeago batean ahalbideratu nahi dizkiegu bezeroei. Honez gain, denbora tarte jakin batean bezeroek gure dendan baliagarri dauden arropak eta jostailuak prezio egokiago batean alokatzeko aukera ere izango dute, arau batzuk betetzearen konpromisoa hartuta. Neurrien artean honako hauek bete beharko dituzte: alokatutako produktua egoera onean itzultzea, egoera txarrean itzuliz gero (desegin ezin diren orbainak, jantzietan zuloak...) produktuaren balioa ordaindu

beharko dute bezeroek; itzuli behar den egunean dendara ekartzea; eta oraindik zehaztu barik dauden arau batzuk.